



**EGUNEKO ARRETA UDAL ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ARAUDIAREN ALDEZ AURREKO
KONTSULTA PUBLIKOA**

- PARTE HARTZEARI BURUZKO TXOSTENA -

Urriaren 1eko 39/2015 Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen Legearen 133. artikulua behartzen du araudi proiektu bat prestatu aurretik kontsulta publikoa egitera.

Kontsulta publikoaren helburua da herritarrek eta kontu hauetan zeresana izan dezaketen erakundeek ondorengo puntu hauei buruz zein zer iritzi duten jakitea:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Aurrekoa kontuan hartuta, Oñatiko Udaleko Ongizate Zerbitzuen Departamenduak Adineko pertsona zaugarrientzako Eguneko Arreta Udal zerbitzua eskuratzeko, emateko eta konfinantzatzeko baldintzak arautzen dituen Udal arautegia onartzeari buruzko arau-ekimenari dagokion alde aurreko kontsulta publikoa bideratu du, 20 egun balioduneko epean, Oñatiko udaleko web atariaren bitartez.

Ekarpenak egiteko epea: 2022/02/03a arte

Epa amaitu da ekarpenik jaso gabe.

Oñatin, 2022ko otsailaren 4ean

PARTAIDETZA ETA GARAPEN KOMUNITARIOKO TEKNIKARIA

